

AURKEZPENA

Ba al dakizue zenbat pertsonak praktikatzen duten kirol egokitu munduan? Uste duguna baino gehiago dira, 14.000 federatu hain zuzen ere. Zer iruditzen zaizue, asko edo gutxi? Guztira, 22 kirol egokitu daude erregistratuta olinpiada paralinpikoetan; eta gu horietatik batzuk hautatu ditugu (ezagunenak), futbola, saskibaloia, txirrindularitza, igeriketa, arku-tiroa, eta tenisa.

Idea hau Julen eta Henryren kirolaren inguruko zaletasuna eta Izaro eta Aimarren herriko jendeari laguntzeko helburua nahastuta irten zen. Bai, gu laurok (Julenek, Henryk, Aimarrek eta Izarok) osatzen dugu *Lauburu* taldea.

Gure helburua, kirol hauetarako materiala eskaini eta probatzeko aukera ematea, eta bide batez kirol egokituak jende gehiagori iristea eta zabaltzea da. Nola lortuko dugu? Alde batetik, gure inguruko dendak behatu ditugu eta ez dagoela mota honetako dendarik, konturatu gara, kirolen inguruan denda asko daude baina, ez kirol egokituekin zer ikusia dutenak.

Bestalde, gure inguruko jendearekin hitz egin dugu eta esan digute ez zela gaizki etorriko mota honetako dendaren bat hemen inguruan. Zaletasun hau dutenei laguntzeko aitzakiarekin, bide batez, ikuspen gehiago eman nahi digou kirolaren alderdi honi. Horretarako hainbat federazio eta enprekin lan egin eta kolaboratuko dugu.

Gure denda Donostian kokatuta egongo litzateke, batez ere, Gipuzkoako jendeak horrelako dendaren bat inguruan izateko, Hala ere, gure web gunean ere egongo dira produktuak salgai, gainera, web guneaz gain sare sozialen bitartez ere, bezeroak, gurekin komunikatu daitezke, bai eskariak egiteko, eta baita edozein zalantza argitzeko ere.